



ELEKTROMEKANIKA

1EM2 - 2EM3


ESPEZIFIKAZIO DOKUMENTUA

0. Testuingurua



Elektromekanikako zikloan, 2023-2024 ikasturtea izango da ETHAZI metodologiarekin lanean egingo dugun lehena. Aurrez, sentsibilizazio, formazio eta prestaketa jaso dugu irakasle gehienok, departamentu bereko Automozio zikloan 2017 urtetik Ethazi metodologian lanean dihardute gainera.

1. Kurtsoko planifikazioa



Ethaziko metodologiara pausoa eman dugun lehenengo ikasturte honetan, zeharkako gaitasunekin lan egiten hasteaz gain, erronka intermodular batzuk definitu ditugu.

Modulu arteko erronkak, moduluko erronka edo metodologia tradizionalagoarekin konbinatuko ditugu. Ikasgai batzuen arteko erlazioa egitea erraza ez denez, etorkizunean modulu arteko erronkak, erronka modularrekin soilik partekatzea da asmoa. Hala ere, helburua zikloaren gaitasun teknikoak definitzea denez, honek erronka intermodularrak planteatzea erraztuko duela uste dugu.

Erronkez gain, beste metodologi aktibo batzuk ere erabiltzen saiatuko gara: Analisi metodoa, Arazoetan oinarritutako metodologia..

Konfinamendua edo/eta egoera ez presentzial baten aukera izaten badugu, irakasle taldeak erabaki ahalko du erronken bidez jarraitu edo momentu batean lan individual eta modularrago batera pasa. Horretarako momentuko egoera, baliabideak...aztertuko dira.

1.1. Kronograma

1EM2 Izara dokumentua

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/1eMB2d9iBNwFEypYTNzLn2uYcjcOVTZ1YUB8zT1uP9rc/edit#gid=433867768>

2EM2 Izara dokumentua

https://docs.google.com/spreadsheets/d/11CTdxUlwns5Z5Q2vO4UonctXsb-_1o9uS9w1Fgjk62U/edit#gid=433867768

1.2. Moduluen programazioak

1 EM2 Izara dokumentua

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/1eMB2d9iBNwFEypYTNzLn2uYcjcOVTZ1YUB8zT1uP9rc/edit#gid=1027703377>

2EM2 Izara dokumentua


https://docs.google.com/spreadsheets/d/11CTdxUlwns5Z5Q2vO4UonctXsb-_1o9uS9w1Fgjk62U/edit#gid=1221673418

1.3. Metodologia aktiboak

Erronken deskribapena

[Erronka eredu](#)an ikusten den bezala, 11 pausoak nola burutuko diren adierazten da. Dagokion pausoan sortu diren euskarriak ere gehituta daude. Ziklo batek edozein aldaketa egitea aurre ikusten bada, irakaskuntza koordinatzailearen bitartez gainontzeko ziklo guztiei adieraziko zaie aldaketa horren berri. Proposatutakoa hobesten bada, aldatzeko hautua egingo da. Bestalde, irakasle erronkan ere, pauso bakoitzean irakasleak pauso bakoitzean jarraitu beharrekoa idatziz adierazita dago. Irakasle erronka eredu hau komuna da ziklo guztientzat.

2. Ikasleen eta irakasleen ordutegiaren antolaketa



Erronkak eta metodologia tradizionalagoa partekatuko dugu momentuz, ETHAZI metodologian guztiz murgildu bitartean.

Erronka modular eta metodologia tradizionalan, irakasleak bere ordutegia mantenduko du.

Modulu arteko erronken kasuetan, irakasleen arteko ordutegi adostasun bat eman beharko da baina, erronkaren garapena egokia bermatuta geratuz gero, irakasleek bere ordutegia mantenduko dute. Bestela, laguntza sistema bat definitu beharko da erronkaren funtzionamendua bermatzeko.

Erronketan era honetako ordutegi bat egongo da eta ordu bakoitzean zein irakasle edo modulu egon behar den zehaztuta egongo da.

Astea:tikra

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00					
9:00 – 10:00					
10:00 –11:00					
11:30 –12:30					
12:30– 13:30					
13:30 –14:30					



3. Ebaluazio sistema

Ebaluazioa bakoitzean, mailako irakasleek batera, zeharkako gaitasunen feedback-a emango diete ikasleei eta teknikoena irakasle bakoitzak bere ikasgaiari.

Lehen mailan gutxienez 3 feedback orokor egitea aurreikusten da eta bigarren mailan bi.

3.1. EM2 zikloko gaitasun teknikoaren eta zeharkakoaren portzentaia ondorengoak izango dira.

- Gaitasun teknikoak: %60
- Zeharkako gaitasunak: %40

Kurtsoa gainditzeko zeharkakoak eta teknikoak gainditu behar dira ezinbestean.

Zeharkako gaitasunen ebaluazioa

Lehen eta bigarren mailan hurrengo zeharkako gaitasunak landu eta ebaluatuko dira:

LAN JARRERA

AUTONOMIA

IDATZIZKO ETA AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Lehen mailan Lanerako Jarrera, Idatzizko Komunikazioa eta Autonomia ebaluatuko dira, eta irakaslearen ebaluazioa, ikaslearen autoebaluazioa eta koebaluazio bidez egingo da.

Bigarren mailan, Lanerako Jarrera, Idatzizko eta Ez-ahozko Komunikazioa eta Autonomia ebaluatuko dira, lehen mailako modu berdinean.

Irakasle bakoitzak zeharkako gaitasun baten lanketan hartuko du iniziatiba. Banaketa hori kurtso hasieran egingo da. Ebaluazio ordea, irakasle bakoitzak bere erroka edo modulorako egin dezake beharrezkoa ikusten bada.

3.2. Ikasturteko bukaerako nota, lehen azken ohiko nota, ateratzeko irizpide honen arabera kalkulatu da eta ikasturte hasieratik publiko egingo da.

GAITASUN TEKNIKOAK: Ikasgaiaren arabera batzbestekoa edo jarraia

ZEHARKAKO GAITASUNAK

JARRAIA

Gaitasun tekniko eta zeharkako gaitasunekin azken ohiko nota bi hauen arteko batzbestekoa aplikatuz kalkulatu da.

Bataz-bestekoa ateratzeko derrigorrezkoa izango da gaitasun guztiak gainditzea. Ikasturtean zehar lantzen diren zeharkako gaitasun guztien nota ebolutiboa jarraia izango da eta ondorengo pisua izango dute.

- Lanerako jarrera %20
- Autonomia %10
- Idatzizko eta ahozko komunikazioa %10

GAITASUN TEKNIKOAK	GAITASUN NOTA EBOLUTIBOA	BOLETINEKO NOTA KALKULOA
Erronka 1 Multzo nagusia 1 Multzo nagusia 2 . . Multzo nagusia 7	MODULUAREN ETA ERRONKAREN ARABERA	BATAZBESTEKOA
		BATAZBESTEKOA
		BATAZBESTEKOA
		BATAZBESTEKOA

3.3. Ebaluazio momentuak. Urtean lehen mailan 3 aldiz eta bigarren mailan 2 aldiz ebaluatuko dugu ikaslea gutxienez eta ikasturte hasieratik publiko egingo da. Honek ez du esan nahi ikaslearen jarraipena 3 aldiz bakarrik egingo denik. Erronka edo multzo nagusi bakoitzean ikaslea zein puntutan dagoen aztertuko dugu.

Ebaluazio egiteko, irakasleak erronken zehar ebidentziak hartuko ditu gaitasun ezberdinetan.

3.4. Banako tutoretzak. Ebaluazioa amaieran feedback 1 egingo da. Beharra izanez gero, feedback gehiago egin daitezke.

- **Ebaluazioan zehar:** Beharrezkoa ikusiko balitz egingo litzateke eta ikaslearen inpresioak jasotzeko eta ikasleari ikusten zaizkion hutsuneak bideratzeko balio lezake.
- **Ebaluazio bukaeran:** Ebaluazio bukaerako feedback-a, ikaslea, irakasle taldeak nola ikusi duen transferitzeko erabiliko da. Datorrenari begira, modu ahalik eta positiboenean adieraziko zaio ikusitakoa eta hobetzeko duen horretan sakonduko da.

Bakarkako feedback hauek, gela bereizi batean egingo dira eta mailako irakasle talde osoak parte hartuko du eta bereziki zeharkako gaitasunen hausnarketan zentratuko dira. Irakasle bakoitzak bere ikasgaiaren gaitasun teknikoaren feedbacka egingo du bere aldetik.

Feedbacka noiz eta nola egiteko [gida](#) bat izango dute eskuragarri irakasleek.

3.5. Errekuperazio sistema. Lehen aipatu bezala, ahal den neurrian, ikaslearen ebaluazioa jarraia izango da. Hau da, bukaerara nola heltzen den aztertuko dugu. Hau horrela izanda, bera eboluzioaren jarraipena egin eta ikasleari azaldu beharko zaio zertan hobetu beharko duen erronka bakoitzean. Bai gaitasun tekniko zein zeharkakoetan.

- **Bukaerara eskatzen dugun minimora heldu gabe heltzen bada:**

1. **Ikaslea klaseetara etorri bada eta GAITASUN TEKNIKO-etan ez bada minimoetara heldu:** Proba edo proba batzuk jarriko zaizkio ekainean, gutxienekotara iritsi ez den atalak errekerperatzeko. Aurreko errekerperazio astean, heldu ez den minimo horiek lantzeko aukera izango du.
2. **Ikaslea klaseetara etorri bada eta ZEHARKAKO GAITASUN-etan ez bada minimoetara heldu:** Modulua gairiditzeko ezinbesteko baldintza, arlo guztiak gairiditzea izango da. Zeharkakoak, banakako feedback-etan ikasleak hartutako konpromezuak betez gairiditzeko aukera egongo da. **Hala ere, ez bada gaitasun horren gutxienekora iristen, dagokion moduluen gaitasun teknikoen errekerperazioa egin beharko du.**

- **Ebaluazioa jarraia ez bada,** hau da, I.E/Gaitasunak ez direlako denean lantzen edo erronka bakarrean lantzen direlako: Irakasleak errekerperazio (azterketa, lan, erronka...) bat jarriko dio dagokion gaiekin.

- **Ezarritako falta kopurua pasa duen ikasleak:**

1. **Matrikulatu bai, baina klasera agertzen ez den ikasleak;** ohiko azterketak, edo frogak egiteko aukera izango du.
 2. **Klasera etortzen da baina egoera ezberdinak medio falta kopurua pasatzen du;** dagokion ikasgaien ohiko azterketa edo probak egiteko aukera izango du.
- + Konfinamendua edo/eta egoera ez presentzial bat ematen bada, ikasleak etxetik egiten duen eta konektatzen den jarraipena egingo da. Horren arabera baloratuko da eta goian aipatu neurriak hartu.

3.6. Amaierako bigarren nota kalkulatzeko, argi izan behar dugu puntu honetara heltzen diren ikasle guztiak berdin ebaluatu behar ditugula. Hau da, ebaluatze modu berdina erabili behar dugu guztiekin. Hau horrela izanik, azterketa bat jarriko dugu urte osoko edukiak landuko direlarik.

4. Ikasleen bertaratze falten kudeaketa



Irakasle bakoitzak bere orduetan izaten diren falten kudeaketa eraman beharko du. Falta hauen kudeaketa ikasgaika

Hau da, %20 (<100h) eta %15 (>100h) margena ikasgaika hartuko da.

5. Errepikatzaileak, konbalidazioak, noten eskualdatzea eta DUALa



Konbalidazio eta noten eskualdatzeari dagokionez, ikastetxearen erabakia jarraitzen da. Konbalidazioa ikasleak eskatu beharko du.

5.1. Errepikatzailea. Kurtsoz errepikatzen duen ikasleari nahiz eta ikasgai batzuk gaindituta izan, ordu guztietara etortzea gomendatuko zaio. ETHAZI metodologian oinarrituriko ikaskuntza kolaboratiboan dihardugunez, taldekako dinamikan sartzea eskatuko zaio. Argi utziko zaio, aurreko urtetik gelditu zaizkion ikasgaiak ebaluatuko zaizkiola bakarrik. Ikasgai horri edo horiei dagozkien klase espezifiko/informazio/klase magistral batzuk eman behar badira, ordu horietan ez du zertan klasera etorri beharrik izango.

5.2. Konbalidazioa. Errepikatzaileen kasuan bezala, ordu guztietara etortzea eskatuko zaio ikasleari, erronken dinamikan sartuta egon dadin. Ikasgai horri edo horiei dagozkien klase espezifiko batzuk/informazio/klase magistral batzuk eman behar badira, ordu horietan ez du zertan klasera etorri beharrik izango.

5.3. DUAL. 1.mailako 2.hiruhilabetea bukatu ostean, irakaslego taldeak erabakiko du zein ikaslek betetzen dituen DUALera joateko baldintzak:

- 2.hiruhilabetean ikasgai guztietan eskatutako maila teknikoa zein zeharkako gaitasunetan exijitutako maila lortzea.
- Enpresa baino ikasle gehiago badaude; irakaslego taldeak erabakiko du ze ikasle joango den DUALera. Horretarako ebaluatzeko erabiliko diren ebaluazio irizpideen arabera ikaslearen sailkapen bat egingo da.
-